



AMAIA ZENTROA
Benito Perez galdos z/g
01002 GASTEIZ
araba@bertsozale.com
945010505

Badator uda, uda badator
Prest daukagu pack osoa:
Eguzkitako krema, sonbrilla
Txankletak eta bertsoa!

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

Berripapera

Arabako XIX. Bertsolari gazteen Txiropterus Eskolartekus heldu da helmugara!

Maiatzaren 31an, Arabako saguzarrak Legutioko Kultur Etxeko leizean genuen zita. Sonarrak piztu, lagunei gonbitea egin eta bertan elkartu ginen 60 bat saguzar, 14-18 urte bitarteko Txiropterus Eskolartekusaren finala burutzeko eta bertso eskolen eguna ospatzeko.

Oholtza igotzen lehenak sortak kantatzera etorri ziren saguzar gaztetxoak, Aramaioak, Aguraingoak eta Murgia-koak. Ondoren etorriko zen saiorako motorrak berotu zituzten eta ondo jakin zuten umore puntua jartzen ere.

Ondoren, irribarrea ahoan oholtzaratu ziren Maria Fuentes, Markel Yoller, Egoitz Iradier, Peru Abarrategi, Maddalen Arrausi eta Unai Argote, bakoitza saguzar familia banatakoa, denak ere pedigrigidunak. Burmuinak hegaldirako prest zituzten, 4 oinak buruan, ahoak zabaldu eta han hasi ziren publikoaren gozamerako bertso-ultra-soinu ale ederrak igortzen.

Behin lanak amaituta epaileen epaiaren zain zeuden ugaztun hegalaria, nor izango ote aurtengo BATWOMAN edo BATMAN? Trrrrrrr... Peru Abarrategi aramaioar gazteak darama aurtegoan BATtxapela eta bigarren postua Maddalen Arrausirentzako. Biak izango dira Orion, ekainaren 21ean burutuko den Euskal Herriko Eskolarteko finalean.

Orduan etorri zen eguneko momenturik ederrenetako bat, publikoan zeuden bertso eskoletako saguzar denak igo ziren oholtzara. Peru Batmanek buruan txapel beltza jaso, besoak gurutzatu eta bertso eskoletako kideen babesean bota zuen txapeldunaren bertso-uhina. Hor ikusi zen saguzarrek duten bihotz erraldoia.

Bat-bateko saioa amaituta eguraldi eskasari irribarre eginez, kalejiran abiatu ginen haur, gazte eta gurusoak kalean barna. Alboka, pandero eta puntuatu gabeko bertsoek hartu zuten kalea eta 15:00etan Kiroldegiaren aterpean herri bazkari goxoa izan zuten eskerroneko sari. Bazkalostean herri olinpiadak burutu genituen, tentsioak alde batera utzi, bertso-eskola guztiak nahastuta, eguneko hegaldiari amaiera bikaina eman.



Argitalpenaren laguntzailea:



Ikasturteari aguuuurr

2013-2014 ikasturtekoari agur esango diegu baina hau bezalako asko etortzeko nahiko genuke. Ez da gutxi ikasturtean egindakoa:

- Udazkenean web gunea estreinatu genuen: .bertsozale.com/araba, Txapelketa Nagusiko bi saio, Gasteizko euskaltegietan bertsoarritza lantzen hasi ginen, Bertxorakeriketa eguna Gasteizen, Gasteizko Gizarte Etxeetako liburutegietan bertso-egitaraua osatu genuen, 11 bertso-eskolak martxan ipini ziren, bertso-eskoletako irakasleentzat formakuntza Eulaten, Bertxoko Sariketa berriuta jokatu zen, irratsaio berria Radio Vitorian eta Bertxoko Hala Bedin tinko, bertso-saioak Arabako herri txikietan Araba Bertsozale egitasmoarekin, institutuko gazteekin Bertsoa bizi gazte egitasmoa martxan.

- Neguan Kuadrilla artekoa martxan ipini zen, ABEk ireki zuen Sagardoaren garaia, Gasteizko udalarekin hitzarmena berri genduen, Lautadako umeekin bertso-barnetegia, Apaolaza eta Pastorri babes eman genien, Batzar Orokorra Agurainen, sexu eta ugalketa eskubideen inguruko bertso paper lehiaketa Medicus Mundirekin.

- Udaberrian: Kuadrilla artekoaren jai Agurainen, bertso-barnetegiak Aiaraldea eta Gorbeialdeko umeekin, Eskolartekoa berria, ikastetxeen arteko bertso-topaketak, gaitzaile tailerra.

- Udan: jaietako bertso-saioak, ABEk txosna ipiniko du Gasteizko Jaietako Txosnagunean, 2015eko Txapelketa diseinatzen.

BERTSO
Urtekarria

Añanako 3 ikastetxek landu dute bertsoarritza eskola ordutan

Oihane Perea, Arabako Bertsozale Elkarteak irakaslea, klasea ematera etorri da 3 ikastetxetara. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak izan dira. Gu ere bertsoarri programan parte hartu dutenak. Gabea eskolak, Unamuzaga eskolak eta Jose Migel Barandiaran eskolak hartu dute parte.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide batez hainbat bertso emanaldi burutu dituzte klasean prestatutako bertsoekin: MUSIKA, KULTURA, HITZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK landuz.

Ekainaren 6ean ikastetxe guztien topaketa burutu genuen Iruñean Okako kultur etxean. Bi bertsoarri gaztek bat-bateko saioa eskaini zuten eta talde bakoitzak ikasturtean landutakoaren lagin ederren eraman zuten. Ederra benetan ikasturtea denek batera amaitzea. Uda ona pasall!

BERTSOARITZA AÑANAN-BERTSOZALE ELKARTEA
ANANA BERTSOTAN
2013/14 ikasturtea



Udalekuak

Bainujantzia soinean, txankletak oinetan eta toaila sorbaldan jarrita uretara!

Udako solstizioarekin batera bagoaz udalekuetara... Ondarretara eta Barriara.

Ekainaren 24tik 27ra, Ondarretara joango gara Etxaurren ikastolako haurrekin. Etxetik salto batera izango dugu hondartza, beraz ezkatak ere aterako zaizkigu, agian piratek ezkututako altxor baliotsuren bat ere topatu dezakegu murgilaldi batean!

Uztailaren 1etik 7ra Barriara joango gara leku ezberdinetako 40 gaztetxorekin batera. San Ferminetako Txupiña galduko dugu baina, antzinara jo eta noblezia bagina bezalaxe Barriako klaustroko XVI. mendeko dantzaldietan jardungo gara. Lazarragak ikusiko bagintu!

Izen emateko datak itxita daude baina, datorren urtean ere antolatuko ditugu beste udaleku batzuk. Badakuzue lagunok, hurrengorako animatu eta udaz bertsoan gozatu!



Bertxosna

Aurtengo Gasteizko jaiak bereziak izango dira gure elkartean. Ezberdinak.

Hainbat urteetako elkarlanaren ondotik, Arabako Bertsozale Elkarteak Txosna Batzordearen parte izatea erabaki du bertsozaleei Gasteizko jaietan bertso-gune bat eskaini eta auto-finantzazio iturriak bilatzeko asmoz.

Dagoeneko lan taldean ari gara txosnetako egitaraua ixten... eta... itxura ederra du.

Giro herrikoia, aldarrikatzailea... jai giroa azken finean. Eta giro horretan, ZU, bertsozale, beharrezko osagai zara.



ABEren TXOSNA, 21:00etan

Abuztuaren 5an

Bertso kata

Abuztuaren 6an

Bertxoko all stars

Abuztuaren 7an

Saio musikatua

Abuztuaren 8an

Bertso fushion

Abuztuaren 9an

Bertso kinito

Txosnari, zein txosna guneari denon artean emango baitiogu bizia: kantuz, txanda eginez... edo, besterik gabe, gure txosnan trago bat hartuta

Gau giroan ere bertsoetatuz gozatzeko aukera izango duzue beraz. **ENTXOSNATU GUREKIN!!**

Arabako Bertsozale Elkarteko txosnan txandaren bat egiteko prest bazaude, bidali email bat araba@bertsozale.com era edo deitu **688 616531** telefonora.

2015eko Txapelketa

Berrituta etorriko da 2015eko Arabako Bertsolari Txapelketa.

Arabako Zuzendaritzak eta bertsolariek bat egin dute bertsogintzaren gaur egungo irakurketan. Talde Antolatzalea osatu da eta diseinatzen hasi da 2015eko Txapelketa. Motzean ezaugarri hauek edukiko ditu:

- egitura txikiagoa: bertsolari gutxiagok parte hartuko dute
- parte hartzeko 18 urte bete behar da urte horretan
- bertso gehiago kantatu behar dira saio bakoitzean
- sailkatzeko egitura berria
- zutik kantatu behar da saio guztietan

Honen ondorioz, aurtengo irailaren bukaeran eta urriaren hasieran **2015eko Txapelketan parte hartzeko aurre-kanporaketa batean kantatu beharko dute Txapelketan parte hartu nahi duten bertsolariek**, 2013ko finalistek salbu.

Aurre-kanporaketak data hauetan izango dira:

Irailak 27, larunbata	16:30	1.Aurre-kanporaketa
	18:00	2.Aurre-kanporaketa
Urriak 4, larunbata	16:30	3.Aurre-kanporaketa
	18:00	4.Aurre-kanporaketa
Urriak 11, larunbata	16:30	5.Aurre-kanporaketa
	18:00	6.Aurre-kanporaketa

Txapelketa urtarrilean hasiko da eta Aste Santu aurretik bukatuko da.



ZERNAHI: PERIPE VI



Bai, hala dunk: Arabako eskolarteko koroapetik pasa ditunk azken urteotan Oihane Perea, Irati Anda, Manex Agirre, Iñaki Viñaspre, Ane Zelaia, Markel Arriolabengoa, Izar Mendiguren, Mikel Serrato, Guillermo Vegas, Ekaitz Samaniego, Ander Solozabal, Xabi Igoa, Amaia Lasa edo Paula Amilburu. BAINA INORK EZ DINK AURTENGO TXAPELDUNAK BESTE OHORE ETA BITORE JASO, argazki honetan ikus dezakegunez: gorte-sau bonbodun, zaldun kantari eta zerbitzari mainontziz inguratuta zagonk PERIPE BORBORRATEGI VIa. Biba errege! Biba Araba! Izan bedi hire monarkia bertsolaristikoa probetxuzko, oparo, adoragarri, zorioneko. Biba!

AGENDA

Web gunean Arabako agenda eguneratuta aurkituko duzu. Baina ez ahaztu betiko bertso-data hauek:

Ekainean Aranbizkarrako jaiak

Uztailean Gasteizko Errota eta Adurtza auzoko jaiak, Aramaioko Xantixako jaiak, Trebiñuko euskal jaiak

Abuztuan Aramaioko Ullibarriko jaiak, Gasteizko jaiak Aihotz plazan, txosnagunean eta ABEn txosnan, Amurrioko jaiak, Araiko Andramari jaiak, Laudioko jaiak.

Gasteizko jaietan

Abuztuak 5

13:30 Lekua: Aihotz Plaza Bertsolariak: Amets Arzallus, Andoni Egaña Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak

Abuztuak 5

Bertso-kata. Enologo eta Arabar Errioxako bertsolariak 21:00 Lekua: Arabako Bertsoszale Elkartearen txosna Bertsolariak: Orlando Arreitunandia, Unai Bengoetxea, Iker Olabarrieta Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak

Abuztuak 6

13:30 Lekua: Aihotz Plaza Bertsolariak: Odei Barroso, Irati Anda, Jagoba Apaolaza, Jon Maia Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak

Abuztuak 6

Bertxoko All Stars 21:00 Lekua: Arabako Bertsoszale Elkartearen txosna Bertsolariak: Manex Agirre, Irati Anda, Ander Solozabal, Jagoba Apaolaza, Iker Pastor Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak

Abuztuak 7

Jaiak. Bertso-saioa Ordua: 13:30 Lekua: Aihotz Plaza Bertsolariak: Etxahun Lekue, Oihane Perea, Unai Iturriaga, Ander Solozabal Gai-jartzaileak: Maialen Kortabarria Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak

Abuztuak 7

Bertso-saio musikatua 21:00 Lekua: Arabako Bertsoszale Elkartearen txosna Bertsolariak: Irati Anda, Ander Solozabal, Julen Zulaika Gai-jartzaileak: Bittor Abasolo Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak

Abuztuak 8

"Hiru, bi, zast!" haurrentzako emanaldia Ordua: 12:00 Lekua: Peñaflores Parkea Antolatzaileak: Gasteizko Udala

Abuztuak 8

13:30 Lekua: Aihotz Plaza Bertsolariak: Iñaki Viñaspre, Felipe Zelaieta, Iratxe Ibarra, Beñat Gaztelumendi Gai-jartzaileak: Beñat Garaio Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak

Abuztuak 8

13:30 Lekua: Txosnagunean. Entxosnatu eguna. Bertsolariak: Oihane Perea, Ruben Sanchez, Sustrai Colina, Onintza Enbeita Gai-jartzailea: Maialen Kortabarria Antolatzailea: Txosna Batzordea

Abuztuak 8

Bertso-fusion Ordua: 21:00 Lekua: Arabako Bertsoszale Elkartearen txosna Bertsolariak: Iñaki Viñaspre, Iker Pastor Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak

Abuztuak 9

13:30 Lekua: Aihotz Plaza Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Ruben Sanchez, Xabi Igoa, Eneko Fernandez Gai-jartzaileak: Idoia Beitia Antolatzaileak: Arabako Bertsoszale Elkarteak